

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

**Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko irailaren 24an hartutako erabakiaren laburpena: turismoa dinamizatzeko eta hiria promozionatzeko udal laguntzen programaren berriazko deialdia onestea. 2021. urtea**

BDNS(Identif.): 591015

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/591015>),

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>), baita Gasteizko Udalaren webgunean ere (<http://www.vitoria-gasteiz.org>).

#### **Lehena. Xedea**

Tokiko turismoa dinamizatzen eta Gasteiz kanpoan promozionatzen laguntzen duten proiektuak eta ekitaldiak sortu eta garatzearekin lotutako jarduerak egiteko laguntzak emateko baldintzak arautzea.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa. Bi dirulaguntza-ildotan banatuko da deialdia:

1. Gasteiz egoitza izango duten biltzarrak edo ekitaldiak antolatzea.
2. Gasteiz kanpoan promozionatzea turismo-helmuga iraunkor gisa.

#### **Bigarrena. Onuradunak**

Gasteizen helbide soziala eta fiskala duten pertsona fisiko edo juridikoak, haien forma juridikoa edozein delarik, baldin eta deialdiko baldintzak betetzen ez dituzten enpresekiko loturarik edo halakoen partaidetzarik ez badute eta helburu sozialaren bitartez turismoaren sektoreko jarduera egiaztatzen badute.

#### **Hirugarrena. Oinarriak**

2020ko abenduaren 11n onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2021. urteko dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2020ko abenduaren 30eko ALHAO, 148. zk), eta 2021eko irailaren 24an, berriz, turismoa dinamizatzeko eta hiria promozionatzeko udal laguntzen programaren berriazko deialdia 2021. urterako. Udalaren webgunean, [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org), eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Laguntza deialdi honek 100.000,00 euroko zuzkidura du, 2021erako onetsitako udal aurrekontuko 0823.4331.471.37 partidaren kontura ("ekonomia dinamizatzeko laguntzak"). Bi jardueratara banatzen da: 70.000,00 euro 1. ildorako eta 30.000,00 euro 2. ildorako.

Enpresa bakoitzeko dossier bakarra tramitatuko da. Onartutako gastuen ehuneko 50ekoa izango da gehieneko zenbatekoa, gehienez 15.000,00 euroko mugarekin, 1. ildoan, eta 6.000,00 eurokoarekin, 2. ildoan.

**Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2022ko urtarrilaren 31ra arte.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 8a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta  
Turismoaren Saileko administrazio orokorreko teknikaria  
IGNACIO CEPEDA CRESPO*